

SOS IRUÑA-VELEIA PLATAFORMAREN AZALPENA LEGEBILTZARREKO EUSKARA ETA KULTURA BATZORDEAREN AURREAN

(2010-XI-16)

1. Auziaren historia

Egunon eta milesker gure agerraldira etorri zareten guztioi. Iruña-Veleiako auzia lehertu zenetik bi urte betetzear daudenean, Koenraad van den Driessche geokimikari belgikarra eta hizketan ari zaizuen Juan Martin Elexpuru, euskal filologian doktorea, datozkizue Sos-Iruña Veleia Plataformaren izenean gaiari buruz dugun ikuspegia eskaintzera. Konbentzituta gaude bidegabekeria ikaragarria egiten ari dela hainbat pertsonaren eta denon ondarearen aurka, mundu politikoaren eta akademikoaren zati handi baten oniritzia edo pasibotasuna lagun, baina pentsatu nahi dugu oraindik ere garaiz gaudela kalteak murrizteko, beti ere bakoitzak bere ahalduentxoak jartzen badu bere aldetik. Gaiak mila adar ditu, eta denbora gutxi dugunez, gure ustez gauzarik inportanteenak direnak ukitzera mugatuko gara ia modu telegrafikoan.

Jakingo duzue, Lurmeneko arkeologoen 2005ean eta 2006an Iruña-Veleiako aztarnategian buruturiko ekitaldietan 400 bat grafito aurkitu zituzten latinezko, euskarazko eta beste hizkuntza batzuetako testuekin, ezohikotzat jo zirenak. Bi prentsaurrekoren bidez aurkeztu ziren 2006ko ekainean, eta notiziak oihartzun ikaragarria izan zuen hedabideetan.

Aurkikuntzen benetakotasunari buruzko eztabaidak sortu ziren berehala, eta hori ikusirik zalantzak argituko zituen nazioarteko batzorde zientifiko bat sortzea eskatu zuten Lurmeneko arkeologoen, eta kanpoko talde batek estratigrafia frogak egitea, analitika berriekin batera.

Urte eta erdi geroago, Arabako Foru Aldundiak “Zientifiko Laguntzailea” izena jarri zion batzorde bat osatu zuen, baina nazioartekoa izan beharrean Lurmenek eskatzen zuen bezala, haren kide akademiko guztiak Euskal Herriko Unibertsitatekoak ziren. Ordurako bide luzea egina zuen faltsutasunaren aldeko kanpaina zabal batek prentsa, hitzaldi eta Interneteko foroen bidez, zeinetan kemen handiz parte hartu zuten gero batzordekide izango ziren irakasle ospetsu batzuk. Gogora ekarri nahi dugu aurkikuntzak prentsaren aurrean aurkeztu zituzten bi pertsona, benetakoak zirela ozen aldarrikatuz, gainera, Gorrochategui eta Santos Yanguas irakasleak, bihurtuko zirela handik gutxira faltsutasunaren defendatzaile sutsuenetarikoak.

Batzordeak izan zuen hamar hilabeteko bizitzan bost bilera egin zituen, eta azkenekoan, errutinazkoa izan behar zuena berez, batzordeko zenbait kidek grafitoak faltsuak zirela aldarrikatu zuten, eta bileraren bukaeran Euskara, Kultura eta Kiroletako Diputatuak Foru Agindu bat entregatu zion Eliseo Gili, zeinen bidez bere lanetik botatzen eta aztarnategia ixten zen, eta fiskaltzari eskatzen zitzaion neurriak har zitzala indusketa-taldearen aurka. Egun berean batzordeko hainbat kidek Arabako Batzar Nagusien eta prentsaren aurrean hitz egin zuten beren erabakiaren motiboak azaltzeko. Ustezko faltsuketaren hainbat froga aurkeztu zituzten, haietako bat guztiz erabakigarria, esan baitzuten grafito batean DESCARTES irakurtzen dela, XVII mendeko filosofo frantziar baten izena, hain zuzen.



DESCARTES ipintzen du
ala MISCAR (T?)

Handik hilabete gutxira, fiskaltzak neurririk hartzen ez zuela ikusirik, Arabako Diputazioak kereila jarri zuen Lurmeneko hainbat kideren aurka ondarearen kontrako kalteak egotziz, eta aztarnategiaren babesle ziren Euskotrenek eta haren filial ETSk ere kereila bana jarri zuten iruzur ekonomikoa leporatuz, Lurmenekoei ia hiru miloi euro itzultzea eskatzen zitzaielarik, zegozkien erantzukizun penalez gain. Gogoratu beharrean gaude dagoeneko Euskotrenek eta ETSk jarritako bi kereilak artxibatuta daudela betiko, epaileek ez zutelako inolako delitu ekonomikorik ikusi, eta hirugarrena, diputazioarena, instrukzioa fasean dagoela oraindik, eta epaileek ez dutela inor epaiketa bidean jarri.

2. Txostenak

Beharbada prentsan irakurriko zenuten 26 kidez osaturiko batzorde batek faltsutzat jo zituela grafitoak. Edo faltsuak direla dioten 26 txosten daudela. Ez da inolaz ere egia. Batzordeak 10 txosten idatzi zituen denera, eta Batzordeko 9 kidek hartu zuten parte horien erredakzioan, kanpoko bost adituren laguntzaz.

Batzordearen txostenak

1.- [Valoración arqueológica del “Informe conjunto arqueológico de Iruña-Veleia. Informe sobre los hallazgos de grafitos de carácter excepcional” y de la documentación del recinto 59, sector 5.](#)

Autores: Agustin Azkarate, Belen Bengoetxea, Julio Núñez, Jose Antonio Quirós, profesores de la EHU-UPV, con la colaboración de los profesores Dominic Perring, de la University College London, y Marco Milanese, de la Universidad de Sassari, Cerdeña.

Registro de entrada: 3 de diciembre de 2008

2.- [Informe sobre los motivos iconográficos presentes en los denominados “grafitos de carácter excepcional” del conjunto arqueológico de Iruña-Veleia](#)

Autor: Julio Núñez, profesor de la EHU-UPV.

Registro de entrada: 4 de diciembre de 2008

3.- [Informe epigráfico-histórico sobre los graffiti hallados en Iruña-Veleia en 2005 y 2006.](#)

Autores: Pilar Ciprés y Juan Santos Yanguas, profesores de la EHU-UPV.

Registro de entrada: 20 de noviembre de 2008

4.- [Dictamen de Joaquín Gorrochategui a la Comisión Asesora de la Diputación Foral de Alava sobre los hallazgos epigráficos de Iruña-Veleia. Campañas 2005 y 2006.](#)

Autor: Joaquín Gorrochategui, profesor de la EHU-UPV.

Registro de entrada: 25 de junio de 2008.

5.- [Informe sobre supuestas inscripciones euskericas antiguas de Veleia.](#)

Autor: Joseba Lakarra, profesor de la EHU-UPV.

Registro de entrada: 3 de diciembre de 2008

6.- [Informe sobre los grafitos latinos de Iruña-Veleia](#)

Autora: Isabel Velazquez, profesora de la Universidad Complutense de Madrid..

Registro de entrada: no tiene sello.

7.- [Estudio e investigación del yacimiento de Iruña Veleia Análisis químicos.](#)

Autor: Juan Manuel Madariaga, profesor de la EHU-UPV.

Registro de entrada: no tiene sello

8.- [Listado y análisis de los grafitos que contienen supuestos signos jeroglíficos y nombres egipcios hallados en Iruña-Veleia \(Vitoria\).](#)

Autor: Jose Manuel Galán, Centro de Ciencias Humanas y Sociales del Consejo Superior de Investigaciones Científicas

Registro de entrada: 10 de diciembre de 2008

9.- [Informe Trebollé.](#) Tema: Palabras hebreas.

Autor: Julio Trebollé, profesor de la Universidad Complutense de Madrid.

Registro de entrada: 24 de noviembre de 2008

10.- [Resumen de actuaciones realizadas por Fernando Legarda en relación con el trabajo asignado a la Comisión Científica Asesora de Iruña Veleia.](#)

Autor: Fernando Legarda, profesor de la EHU-UPV. Opinión sobre análisis de Carbono14.

Registro de entrada: no tiene sello

Txostenak arretaz irakurtzen baditugu, jabetuko gara denak ez direla kategorikoak faltsutasuna aldarrikatzeko orduan, eta Madariaga irakaslearen txosten kimikoak, gure ustez auzia erabaki zezakeen bakarrak, ez duela faltsutasun froga bat bera ere ematen.

Gainera iritzi publikoari ezkutatu egin zaio erabakia hartu zen egunean txosten bat bakarrik zegoela Diputazioan entregatuta, Gorrochategui irakaslearena, eta beste guztiak poliki-poliki heldu zirela hurrengo asteetan, eta “unanimidade zientifikoa” egon zela esaten zuen Agindu Foraleko ondorioak diputazioko funtzionario batek idatzi zituela bilera-eguna baino lehen, artean ia txosten guztiak entregatu gabe zeudenean.

Bestalde, begibistakoa da berez Lurmenen laguntzailea zen batzordea salbuespen-epaitegi bihurtu zela, eta bere erabakiarekin eztabaida zientifikoa errotik moztu zuela, eta ez ziola erantzuteko aukerarik utzi Eliseo Gilen taldeari, eta diputazioari bidea zabaldu ziola atzera-bueltarik gabeko erabakiak hartu eta auzia epaibidean jar zezan.

Geroago, 2009ko maiatzaren eta 2010eko apirilaren artean, Lurmenen defentsak grafitoen benetakotasuna edo erabilitako arkeologia-metodoaren egokitasuna aldarrikatzen zuten 16 txosten entregatu zituen epaitegian. Txostenen egileak doktoreak eta Euskal Herrikan kanpokoak dira gehienak, izen handiko zientzialariak asko, eta grafito eztabaidatuen edukiei loturiko diziplinetan adituak denak. Hauen artean Edward C. Harris doktore britainiarra nabarmendu dezakegu, Bermudas-ko Museoaren zuzendaria eta arkeologia modernoan erabiliena den Harris Matrix metodologiaren sortzailea. Honen txostenak, Eliseo Gilen taldearen lana epaitzerakoan, kalitate-maila gorenekoa dela esaten du. Aipagarriak dira baita Ulrike Fritz egiptologo alemanaren txostena, edo Rodriguez Colmenero epigrafista eta arkeologo galziarrarena, edo Luis Silgo arkeologo eta filologo valentziarrarena, edo Bartzelonako Unibertsitateko Ramon Baxarias paleopatologoarena, edo nire ondoan dagoen Koenraad van den Driessche geokimikari belgikarrarena. Hauek denak, gainontzeko txostenak bezalaxe, grafitoen benetakotasunaren alde mintzatzen dira. Gainera, azpimarratu nahi dugu 16 txosten zientifiko horiek 1.800 orrialde inguru dituztela denera eta txostengileetarik inork ez duela zentimorik jaso bere lanagatik, eta batzorde ofizialeko 10ak, oster, ez direla 400 orrialdera heltzen eta diputazioak 1.800 euro ordaindu dituela txosten bakoitzarengatik.

Lurmenen defentsaren txostenak

- 1.1-[Acerca de la metodología arqueológica empleada en las intervenciones desarrolladas en Iruña-Veleia y otras circunstancias \(en respuesta a los informes emitidos por el Área de Arqueología del EHU-UPV para la Diputación Foral de Álava\).](#)

Autor: Eliseo Gil Zubillaga, arqueólogo e historiador.

1.2- [Informe arqueológico de mayo 2007 presentado a la Comisión el día 16 de enero 2008](#)

Autores: Idoia Filloy Nieva y Eliseo Gil Zubillaga, ambos arqueólogos e historiadores.

1.3- [Informe arqueológico de Iruña-Veleia, Sector 5, recinto 59 presentado el día 26/06/08](#)

Autores: Idoia Filloy Nieva y Eliseo Gil Zubillaga, ambos arqueólogos e historiadores.

2.- [Dictamen científico sobre el método arqueológico \(Iruña-Veleia.\)](#)

Autores: Dra. Carmen Fernandez Ochoa, Catedrática de Arqueología y Dr. Angel Morillo Cerdán, profesor de Arqueología.

3.- [Dictamen científico sobre el método arqueológico utilizado en las excavaciones de Iruña-Veleia.](#)

Autor: Emilio Illarregi, arqueólogo y profesor Arqueología.

4.- [Iruña-Veleia. Una evaluación arqueológica.](#)

Autor: Dr. Edward Cecil Harris, Director del Bermuda Maritime Museum.

5.- [Iruña-Veleia. Sobre algunos grafitos singulares aparecidos en las excavaciones arqueológicas de la ciudad romana. Un parecer.](#)

Autor: Dr. Antonio Rodriguez Colmenero, arqueólogo y epigrafista, Catedrático de la Universidad de Santiago de Compostela.

6.- [Informe sobre los ostraca con jeroglíficos de tipo egipcio y nombres egipcios escritos en latín sobre hueso y ostraca de Iruña-Veleia.](#)

Autora: Dra. Ulrike Fritz; lingüista y egiptóloga de la Universidad de Tübingen (Alemania).

7.- [Informe sobre los motivos iconográficos presentes en los denominados grafitos de carácter excepcional del conjunto arqueológico de Iruña-Veleia.](#)

Autora: Idoia Filloy Nieva, arqueóloga e historiadora.

8.- [Informe sobre los textos en latín de los grafitos de carácter excepcional de Iruña-Veleia.](#)

Autora: Idoia Filloy Nieva, arqueóloga e historiadora.

9.- [El problema de la falsedad/autenticidad de los ostracones de Iruña-Veleia: evidencias físicas.](#)

Autor: Dr. Koenraad Van den Driessche, geólogo.

- 10.- [Análisis visual de 15 piezas arqueológicas a través de imágenes fotográficas procedentes del yacimiento de "Iruña-Veleia" de Trespuentes \(Alava\).](#)

Autor: Mikel Albisu Lasa, geólogo.

11.- [Informe preliminar de los restos óseos con inscripciones antrópicas procedentes de las excavaciones de Iruña-Veleia.](#)

Autor: Dr. Joaquín Baxarías Tibau, médico paleopatólogo, miembro de la Associació catalano-balear de paleopatología eta Fundació acadèmica de ciències mèdiques i de la salut de Catalunya y Balears.

12.- [Les inscriptions de Veleia-Iruña.](#)

Autor: Dr. Hector Iglesias, filólogo, investigador de IKER (Baiona)

13.- [Comentarios y objeciones a los informes de los profesores Gorrochategui y Lakarra sobre los grafitos en euskera de Iruña-Veleia.](#)

Autor: Dr. Juan Martín Elexpuru, filólogo y escritor.

14.- [Observaciones sobre los recientes hallazgos epigráficos paleovascos de Iruña-Veleia](#)

Autor: Dr. Luis Silgo Gauche, Doctor en Arqueología y Epigrafista especialista en ibero-vasco

Se incluyen los comentarios aportados por el Dr. Jean-Baptiste Orpustan

- 15.- [Informe sobre los peritajes grafológicos de Iruña-Veleia](#)
Autor: Dra. Roslyn M. Frank
- 16.- [Observaciones sobre la “Valoración” del Área de Arqueología de la Universidad Del País Vasco sobre los hallazgos excepcionales del Yacimiento de Iruña-Veleia](#)
Autor: Dr. Luís Silgo Gauche

Gure ustez, batzordeko txostenek ez dute inondik inora frogatzen grafitoak faltsuak direla edo Lurmenek gaizki induskatu zuela, grafitoak aurkitu arte ondo ari zirela esan baitzen beti, eta indusketa taldearen kanpoko hainbat agiri dago hori erakusteko. Piezak estrato erromatarretan agertu baziren –eta inork ez du kontrakoa demostratu-, eta Lurmenen eta Plataformaren eskariz epaitegiak agindu dituen analitikek ez gaudela faltsifikazio baten aurrean frogatzen badute... nork izango du honen guztiaren erantzukizuna?

3.- Plan Zuzendaria

Gaia “sub judice” dagoen bitartean zuhurtasun eta etika zentzu minimo batek indusketei berriz ez ekitea eskatzen zuen arren, Lorena Lz de Lacalle Euskara, Kultura eta Kiroletako Diputatuak “Iruña-Veleiako Plan Zuzendaria” izeneko proiektua idazteko agindua eman zuen, eta grafitoen faltsutasuna aldarrikatu zuen batzordeko kide bat izendatu zuen eginkizun horretarako, Julio Núñez Marcén jauna, EHUko irakaslea, gaiak idatzi den txosten eskasenetarikoaren egilea, dena esan behar bada. Nork esan zuen ezin dela epaile eta parte onura-jasotzaile izan aldi berean?

Handik gutxira, AFAn Julio Núñez bera izendatu zuen aztarnategiko zuzendari, eta honek joan den uztailaren erdian lanei hasiera eman zien, “Iruña-Veleiaren aro berriari”, diputatuaren hitzetan. Indusketen hasiera ikusgarria izan zen. Aztarnategira hurbildu ginenok harri eta zur geratu ginen ikustean hondeamakina handi batek, bi kamioiren laguntzaz, egiturak jo arte sakontzen zuela, gainean zeuden estrato arkeologiko guztiak aurrean eramanez. Beren Plan Zuzendariak garbi esaten zuen ezin zela gailu mekanikoz 50 cm baino gehiago sakondu, hots, laborantzak mugitutako lurra, baina argazkiek eta bideoek garbi erakusten dute zenbait puntutan 1,50 m arte ere hustu dela. Aurrez egindako azterketek erakusten zuten erromatar garaiko estratigrafia arkeologikoa zegoela 30 cm-tik aurrera. Hondeamakinak aurrera egin ahala geratutako ezpondetan ederki asko ikusten dira ebakitako estrato arkeologiko horiek.

(bideoa)

Plataformak salaketa jarri zuen guardia epaitegian sarraskia gelditu nahirik, baina ez zuen aurrera egin. Epaitegiak ontzat eman zuen diputazioak igorritako txostena, non esaten den hondeamakina erabiltzea “metodo unibertuala” dela arkeologian, disparate hutsa, gure ustez. Salatzen duguna ez da hondeamakinaren erabilera, erabiltzeko modua baizik. Deigarria egin zaigun beste gauza bat zera da, diputazioaren txostena arkeologiarekin zer ikusirik izan ez duen pertsona batek idatzi zuela.

Núñezek erabilitako metodologiaz ikuspegi objektiboa eta independentea izan nahirik, SOS Iruña-Veleia harremanetan jarri zen hainbat herrialdeetako adituekin, eta Núñezek 98. sektorea induskatzeko erari buruzko iritzia eskatu genien. Horretarako, agiriak, bideoak eta argazkiak bidali genizkien, eta baita diputazioak metodologia hori justifikatzeko idatzitako txostena ere. Gaur arte bederatzi herrialdeetako (Alemania, Australia, Estatu Batuak, Espainia, Grezia, Eslovenia, Hungaria, Polonia eta Erresuma Batua) esperientzia handiko 9 arkeologok erantzun digute. Ebaluazio guztiek aho batez eta tinko diote Núñezek erabilitako

metodologiak ez dituela bete edo hautsi egin dituela arkeologia modernoak era honetako aztarnategietan aplikatu ohi dituen arau estandarrak, batez ere kontuan izanda ez zegoela inolako presio edo presarik. Behar-beharrezkoak izaten diren dokumentazio lanak alde batera utzita, eta makinaria astuna erabiliz, ondare arkeologikoa suntsitu da, presaka eta korrika induskatu baitira aurrez egindako azterlanetatik ezagutzen ziren geruza arkeologikoak. Baina aurrez jakinak ziren datuak alde batera utzita ere, aztarnategiaren aberastasuna eta sortu den polemika ezagututa, metodologia zehatza, mantsoa eta begirada neutralek kontrastatua erabili behar zen, eta guztiz alderantzizkoa egin da. Gainera ez da ahaztu behar induskatu den gunean zenbait ezohiko grafito agertu zela bere garaian orain makinaz hustu diren geruzetan, eta, beraz, auzia argitzeko balio zezakeen oinarritzko informazioa ezabatu dela.